# SECCION AMENA.

## ASTOA ETA OTSOA.

### IPUIÑA.

Astoak bizkar-ezurrean
Zeukan zori charrez zauria:
Zan ikuskizun negargarria
Belatzarrak ekin zionean.
Alperra ostikadea,
Eta arrantza gogorrak egitea,
Astazaia begira dago farraz,
Ta belea jaten aukeraz.
Gauza errukarria!
Astoaren ez egotea errukia.
Ekusten zegoan larpetik Otsoa
Zein larri zerabilten Astoa:
Astazaiak bereaz ez errukirik
Ez belacharrari iges erazoterik.
Zori gaiztokoa ni,
Bere esku-pean banagi ipiñi,
Au zion Otsoak, ta ez gaizki,
Bada ondo aztertu badidi.
*Gizon gaiztagiñ otsotuak*
*Daude ipui onetan sartuak.*
*Beti bizi bear dute oek ikaraz,*
*Ez jolasetan ta algaraz.*

JUAN ANTONIO MOGUEL.